

# BIKTIMA GUZTIEK EGIA JAKITEKO DUTEN ESKUBIDEARI EGINDAKO EKARPENAK

GOGOETAK ETA ONDORIOAK



2022ko abenduaren 8a

# "GIZARTE ZIBILAK EGIA JAKITEA ERAGOZTEN DUTEN MUGAK GAINDITZEN DITUZTEN EKIMENAK BULTZATU BEHAR DITU"

---

2022an, Foro Sozial Iraunkorrek Egiaren Batzordearen inguruan nazioartean izandako esperientziak aztertu ditu.

Garrantzi handikoak izan ziren uda honetan Kolonbiako Egiaren Batzordeari buruz aurkeztu genituen ondorioak.

Bestalde, orain dela egun batzuk, azaroaren 23an eta 24an, Donostian eta Iruñean egindako bi jardunalditan, Peru, Brasil eta Kolonbiako kasuak aztertu genituen. Horrez gain, nazioarteko esperientzia hauek 12/2016 Legearen Balorazio Batzordearen esperientziarekin eta Euskal Herrian erabilitako egia bilatzeko beste tresna batzuekin<sup>1</sup> gurutzatu ziren.

---

<sup>1</sup> Unibertsitateek eta Kriminologiaren Euskal Institutuak egindako gaikako txostenak; udal mailan edo gizarte eragileek sustatutako ikerketa-batzordeak; «Memoria partekatua» zortzi txosten; literatura arloan, ikus-entzunezkoak...

## GOGOETAK

Esperientzia horietan guztietan ikusi da egiarako eskubidea oinarrizko giza eskubidea dela eta ez dela preskribatzen. Hori dela eta, abenduaren 10aren bezperan, “Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna”, honakoa jakinarazi nahi dugu:

### *“Egia ezagutzeko eskubidea funtsezko osagaia da giza eskubideen urraketen biktimei erreparazioa emateko”*

- Egia ezagutzeko eskubidea funtsezko osagaia da giza eskubideen urraketen biktimei erreparazioa emateko. Nazioarteko estandar bat da, eta azpimarratu nahi dugu hemen adostasun soziala dagoela honen inguruan, baita instituzional eta politikoa ere, Eusko legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan behin baino gehiagotan ikusi den bezala.
- ETAren nahiz Estatuaren biktimen oinarrizko eskaera bat izan arren, egia ezagutzeko orduan zailtasun handiak daudela baieztatu behar dugu.

Biktima guztien ikuspegitik —edozein dela ere haien giza eskubideen urratzailea—, egia partekatzea, bilatzea eta aitortzea duindu egiten ditu, eta urrats bat izan daiteke haien bizitzak berreraikitzeke orduan.

Estatuaren biktimen kasuan, urraketa horiek posible dira erakundeen isiltasunagatik; izan ere, salaketen preskripzioak eta egindakoa aitortzeari uko egiteak salatzaileak babestu eta zigorgabetasuna ematen die. Hala ere, gertatutakoa ezagutzea, interpretazio-esparru ulergarri batean kokatzea eta irtenbideak proposatzeak biktimak ahalduntzen ditu, eta, biktimarioen kasuan,

berriz ere min egiteko gaitasuna murriztu egiten die, Jose Barrionuevo ministro ohiaren adierazpenen ondoren GALen biktimek jasotako babesean berriki egiaztatu dugun bezala.

Azkenaldian nabarmentzen ari garen moduan, beste gai batzuen konponbidean aurrera pausoak ematen ari badira, egia ezagutzeko eskubidearen kasuan onartu behar dugu gainditu gabeko irakasgai handia dela, eta zailtasun desberdinak daudela:

- Lehena eta garrantzitsuena: denborak egiaren eta biktimen aurka jokatzeko du.
- ETaren biktimen kasuan, Auzitegi Nazionalean espezializatutako fiskaltza bat dago "ebatzi gabeko kasuak" deritzen kasuetarako, baina era askotako zailtasun handiak aurkitzen ditu<sup>2</sup>.
- Estatuaren biktimen kasuan, ez dute tresna hori, eta, gainera, kasu gehienak preskribatuta daude, eta tresna horren eskaera ez dago agenda politikoan.
- Gobernuak ez daude beti prest Estatuaren biktimei egiarako eskubidea aitortu edo bermatzeko. Eta, batzuetan, azaleko bilaketa bat egiten da, "espedientea betetzearen", bigarren mailako betebeharrak gisa.
- Artxibo-politikak (Sekretu Ofizialen Legeak) gertaerak ezagutzea galarazten du.
- Justizia Trantsizionalerako mekanismorik ez izatea oztopoa da biktimarioek behar bezalako urratsak egin ahal izateko.

---

<sup>2</sup> Carmen Alba Auzitegi Nazionaleko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoko koordinatzaile ohiaren adierazpenak XX. Fernando Buesa Mintegian.

Hala ere, eta oraindik bide luzea egin behar den arren, azken hilabeteetan, eta beste gai batzuen konponbiderako urrats sendoak ematen diren heinean, egiaren auzia, pixkanaka, agendan sartzen ari da hainbat eragile eta ekimenen eskutik.

- Lehena eta garrantzitsuena, biktimek egiarako eskubidearen aldeko borrokan erakutsi duten determinazioa.
- Estatuaren biktimen eskariak, Egiari Zor Fundazioak antolatutako ekimenean adierazitakoak. ETAren biktimen kasuan, «Justizia, Egia eta Bizikidetz» lemapean joan den urrian egin zen «XX. Fernando Buesa mintegian» adierazitakoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatuaren biktimen kasuan, 12/2016 Legearen Balorazio Batzordea txosten oso zorrotzak egiten ari da, egia horiei guztiei erreparazioa eta aitortza ofiziala ematen dietenak. Nafarroan, 16/2019 Foru Legeak laster ekingo dio lanari.
- Sekretu ofizialen legeari buruzko eztabaida eta aurkeztutako zuzenketak.
- Justizia Errestauratiboaren eta jasotako ekarpenen inguruan antolatutako topaketak.
- Foro Sozialaren Iraunkorraren lana bera biktima guztiek egiarako, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidearen inguruan.
- Egiaren eskubidearen aldeko borrokan biktimak bakarrik uzten ez dituen eskaera soziala dago.

Horrek guztiak ikuspegi berria ematen dio gai honi. Begirada berri horrek egia izateko eskubidea sendatzeko premia gisa jartzen du erdian, ez zigor-planteamendu gisa, justizia penalaren bidez egia judiziala soilik bilatzeko. Eta azpimarratu behar dugu biktimen ahotsak gero eta pluralagoak direla zentzu horretan.

*“Borondate politiko instituzionalik gabe, gizarte zibilak, testuinguru eta lurralde desberdinetan, biktimen egiaren eskaerei erantzun diela, egia modu independentean bilatzeko ariketak eginez eta gauzatuz, tresna sorta zabal bat erabiliz”*

Hala ere, nazioarteko esperientziek erakutsi digute gutxienez lau baldintza bete behar direla Egiaren Batzorde bat eratzeko.

Lehenik eta behin, gizartearen eskaera egon behar da, ez bakarrik biktimena, baizik eta beste kolektibo batzuenak, hau da, ezin da Egiaren Batzorde bat eratu biktimak beren artean hitz egiteko bakarrik; bigarrenik, Batzorde bat garatzeko baliabide teknikoak, ekonomikoak eta intelektualak (kudeaketa- eta ikerketa-gaitasuna) behar dira; hirugarrenik, borondate politikoa behar da, Batzordeari babesa emateko ez ezik, gertatutakoa ezagutarazteko ikertuak izango diren aktoreen borondatea ere behar da; eta, laugarrenik, segurtasuna, hau da, batzordeak jardungo duen lurraldea behar bezain baketua egotea, biktimek hitz egiteko beldurrik ez izateko eta, hitz eginez gero, errepresaliak jasateko arriskurik ez izateko (ez bakarrik fisikoak edo bortitzak).

Alde horretatik, eta gure testuingurua ezagututa, egiaztatu ahal izan dugu, Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko bi alderdi politikok erabili beharreko tresnatzat hartu duten arren, Egiaren Batzordeak ez dituela une honetan behar diren adostasunak biltzen, ez instituzionalak, ez politikoak.

Baina, aldi berean, ikasi dugu, borondate politiko instituzionalik gabe, gizarte zibilak, testuinguru eta lurralde desberdinetan, biktimen egiaren eskaerei erantzun diela, egia modu independentean bilatzeko ariketak eginez eta gauzatuz, tresna sorta zabal bat erabiliz.

Egiaren Batzorde Ofizialek premisa honekin egiten dute lan: beren gomendioek eragina izango dute gobernuaren erabakietan, eta Estatuak nahitaez erantzun behar die bertan azalarazten diren aurkikuntzei politika publikoen eta gobernu-mailako beste ekintza batzuen bidez.

Aldiz, gizarte zibilak sustatutako ekimenak eta haien estrategiak gehiago bideratuta daude aitortza soziala ematera, gertatutakoa salatzeraz eta informazioa zabaltzeraz, erreparaziorako politika publikoak diseinatzeraz baino.

Azpimarratu behar dugu gizarte zibilak gidatutako egia bilatzeko ekimen horiek ez dituztela gobernuak egia bilatzeko betebeharretatik libratzen. Ekimen horietako asko gobernuak beren betebeharrak betetzen ez dituztenean sortzen dira.

## ONDORIOAK

Indarkeria-zikloaren beste ondorioak konpontzeko urrats sendoak eman ondoren, biktima guztien egia jakiteko eskubidearen gaia behin betiko sartu behar da ebazpen-agendan. Euskal kasurako Egiaren Batzorde baten inguruan adostasunik ez izateak ez gaitu etsipenera eraman behar, ezta biktimak bakarrik uztera eskubide horren aldeko borrokan ere.

1. Egiak guztiok jartzen gaitu ispiluaren aurrean, baina ziur gaude, Estatuaren biktimek jasaten duten tratamendu asimetrikoa gainditzeko urratsak ematen diren heinean, errazagoa izango dela egiaren auziari tratamendu integrala ematea.
2. Bakea eraikitzeko gure prozesuan, egia bilatzeko orduan maila instituzionalean eta judizialean dauden zailtasunak eta mugak egiaztatu ondoren, gure ustez, fase honetan gizarte zibilak izan beharko du, ekimen berrien eta tresna berrien bidez, egiaren bilaketaren buru.
3. Fase honetan, gizarte zibila buru duen ekimena egia sozialean eta perituegian aurrera egiteko tresna bat da, errekonozimendu eta erreparazio ofizialak eskatzeko eta erakundeek hasitako egia bilatzeko proiektuak hobetzeko edo laguntzeko.
4. Gizarte zibilak zuzentzen dituen egia bilatzeko ekimen horiek beste tresna batzuen osagarri dira, eta egiaren bilaketa ofiziala bultzatu behar dute. Ekintza ofizialaren aurretik joan behar dute, gutxieneko estandarrak zehaztuz, ondoren ekimen ofizialek atzetik jarraitzeko eta gainditu ahal izateko.
5. Justizia Trantsizionalik ezean, Foro Sozial Iraunkorrek apustu irmoa egin du egia tresna sendagarri gisa kokatzearen alde, justizia penal zigortzaile gisa baino gehiago; izan ere, justizia zigortzaileak, egiaztatu dugunez, ez dio ia ezer ekartzen bizikidetza demokratikoari, eta zaildu egiten du adiskidetzea.



Foro Sozial Iraunkorrean jakin badakigu zaila dela egia ezagutzeko eskubidea lantzea. Baina ezagutzen ditugu ere gizarte zibilak eskaintzen dituen aukerak, egoera askoz konplexuagoetan, irudimenez eta sormenez, ezinezkoak ziruditen oztopoak gainditzea lortu baitu.

*“Egiak guztiok jartzen gaitu ispiluaren aurrean, baina ziur gaude, Estatuaren biktimek jasaten duten tratamendu asimetrikoa gainditzeko urratsak ematen diren heinean, errazagoa izango dela egiaren auziari tratamendu integrala ematea”*